

2002ko ekaina 5. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria

POLIXENE TRABUDUA
mitinlari eta emakume ospetsua

Derioko azoka - Udalekuak - Idi probak - Liburu eguna

SONDIKAKO JAIKAK GORA SAN JUAN!!!

San Juan Hartz Klinika



- Implantazak eta kirurgia
- Odontologia orokorra eta umeena
- Hartz estetikak
- Periodontozak
- Dnako hartz azterketak

ASEGURU TXARTELAK

Astaketa, Donostia, 2011. 2011. 2011. 2011. 2011.

Justo Ajuna Kalea, 1 - San Juan Hartz
Tel: 94 453 11 00 - 48150 Sondika



- Geroak / estatik zaharrik
- Geroak
- Pintxotak sukera zabele
- Enpresentzako lunch merkatua
- Asleburuetan giro ila

C/ EREMENTERI, 8, 48150, SONDIKA, 944 531 185



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Txori Herri Elorbidea, 28
Telefonoa 944 711 319
Faxa 944 533 540
48150 Sondika / Bizkaia

ileapaindegia

satur

luzapenak - koloreak - mozketak - ile bilduak
ilerako protesiak

Justo Ajuna, 5 - Sondika
hitzordua aurrelik eskalula (tel.: 94 471 10 51)

**Centro Dental
Txorierri**

Mitxine G. Iruja • 48150 SONDIKA
(Tren geltokiararen aurrean)

Dña. R. Astorkia Bordegaray (I.M.O.)
Dr. K. Herguedas Manso

Odontologia - Ortodontzia
Umeentzako Hartz Programa
(Osakidetza) - Hartz Protesiak

☎ 94 471 1639



**Clínica Sondika
Dental**

Dr. Martínez de Zaldueña
MEDIKU - ESTOMATOLOGOA
Dr. Luis López - Arxal
MEDIKU - ESTOMATOLOGOA
ORTODONTZIA

C/ Getzi, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
Fax: 94 453 11 68

e-mail: sondikadental@euskalnet.net
web: www.euskalnet.net/sondikadental

FONTANERIA DOBARAN



Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Sueteak
- Bainugelak

☎ 94 453 3860

☎ 658 75 9084

Mitxine, 4 • 48150 SONDIKA



**BANCO
Guipuzcoano**

Lehenengo Ierroan

Olsoano 1 - Tfnoa: 94 453 51 57 - Faxa: 94 453 51 00
48150 Sondika
e-mail: sondika@bg.bancoguip.es



Tel: 94 453 107
Gara. Kalea, 2 (Tren geltokiararen aurrean)
48150 SONDIKA (Bizkaia)



ALBAITARITZA

SONDIKA

LARRIALDIK 24 ORDUAK

☎ 607 85 6039
☎ 94 453 5208

Mitxine Bidea, 3
48150 SONDIKA



Badira hamalau urte

Badira hamalau urte Txorierriko bailara ezagutzen dudala eta urte guzti hauetan zer gertatu zaidan deigarrien azaldu beharko banu, ezinbestekoa izango litzateke niretzat onartzea izugarria izan dela Txorierri osatzen duten udalerrietan eman den garapena; eta garapena aipatzen dudanean, bai industri garapena, bai hiri-garapena datozkit burura.

Begi bistan dago bailarako udalerriek eskaintzen diguten irudia eta errealtatea guztiz ezberdinak direla, bai herrien egiturari dagokionez baita biztanlegoaren egoera soziolinguistikoa dagokionez.

Egunero Txorierri zeharkatzen dugu-nontzat, deigarriena udalerri guztietan eraiki den etxebizitza kopurua izan daitekeelakoan nago, udalerri batzuetan

etxebizitza kopurua bikoiztu dela esatera ere ausartuko nintzateke, hiriguneei dako-kienez batez ere. Guzti honek biztanle kopuruan ere bere eragina izan duela ez dago zalantzarik; zenbat eta etxebizitza gehiago eraiki udalerri batean orduan eta biztanle kopuru altuagoa aurrikusten da. Nahiz eta herri-garapen hau aspalditik nabaritu azken bost urteotan areagotu dela esatera ere ausartuko nintzateke.

Bestalde, udalerrietako biztanlegoaren egoera soziolinguistikoan ere aldaketa nabarmena nabaritu dela esan beharko litzateke. Egia da etxebizitza hauek; prezioak direla, hiriburuarekin eta inguruko herriei dituzten komunikazioak direla, jende ugari erakarri dutela. Guzti hau kontuan hartuz, eta erroldan ematen zaizkigun datuen arabera, pozgarria da

guretzat euskaldun kopuruaren %aren igoera biztanle kopuruaren %arena baino altuagoa dela jakitea.

Ezin da ahaztu euskaldun portzentaia igoera honetan, paper garrantzitsua jokatu dutela bailaran bertan kokaturik dauden eskola edota beste zenbait ikastetxek zein euskaltegik. Guztiek egin dute euskararen aldeko apustua eta nahi baino maizago borrokari gogor eutsi behar izan arren ez dute inoiz etsi.

Beraz, nahiz eta batzuetan gure lanak gustatuko litzaikekeen baino fruitu eskasagoak ematen dituela pentsatu, gogor ekin behar diogu gure apostuari eta pausu txikiak emanez ere bidea egiten dela pentsatu.

*Testua: Lurdes Lasuen
(Txorierriko Mankomunitateko Euskara Teknikaria)*



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentsaka, Iñigo Hernani, Alberto Legarreta, Lurdes Lasuen, Mari Tere Onaindia.

Kolaboratzaileak: Amagoia Guezuraga, Iñaki Bilbao, Belen Gana, Oihana Astobieta, Fernando Olabarrieta, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi), Puri Martinez.

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: GZ printek
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISBN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

-Eritxia.....	3
-Laburrak eta albisteak.....	4
-Erreportajea	
Polixene Trabudua.....	10
-Zer deritzozu.....	13
-Deriko azoka.....	14
-Udalekuak.....	16
-Baserri mundua.....	18
-Zientzia eta Teknologia.....	19
-Jose Angel Bilbao, idi probetan beteranoa.....	20
-Liburu Eguna.....	22
-Sukaldaritza.....	24
-Denbora pasa.....	25
-Agenda.....	26

LOIUN, SAN PEDRO ETA SANTA LUZIA JAIK 2002

Loiuko San Pedro eta Santa Luzia jaiak hemen bertan ditugu! Oraingoan, urtero legez, hainbat ekitaldi, txapelketa eta denbora pasa ezin hobeak antolatu dituzte Loiuko Jai Batzordeak eta Udalak, loiuztarrek zein bizitariek egun berezi hauek giro ezin hobeagoan igaro ditzaten!

EGITARAUA

Ekainak 27, osteguna

22,30etan, berbena Egan-berri taldearekin. Herriko plazan

Ekainak 28, ostirala

18,00etan, umeentzako margo lehiaketa

Saiheskia

Trikitixa

20,00etan, paleta txapelketa. Hirugarren eta laugarren postuak

21,00etan, paleta txapelketaren finala

23,00etan, Ken Zazpi taldearen kontzertua

00,00etan, berbena Hakker taldearekin

Ekainak 29, larunbata

10,00etan, kalejira txistulariekin

11,00etan, haur parkea

17,30etan, haur parkea

Fanfarrea

20,30etan, sardina dastaketa

22,30etan, berbena Joselu Anaiak taldearekin

Ekainak 30, igandea

10,00etan, kalejira txistulariekin

11,00etan, Haur parkea

00,00etan, zaldi erakusketa

18,00etan, "Galaxi" kale antzerkia, Hartz Muga taldearekin

20,00etan, Euskal Dantzak Galdakaoko Andra Mari dantza taldearekin

22,30etan, Kepa Junkeraren kontzertua



COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRENTA RÁPIDA (TARJITAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Mecánico de la Panu
TEL. 94.878.91.45

URDULIZ ALMACÉN
Igeltzara, 8 1ª Planta D
TEL. 94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERI, 20 LOCAL
TEL. 94.453.87.81

Email: Proplanos@sarenet.es



DERIOKO XVI.IBILALDI NEURTUA

Urtero lez, San Isidro jaiakaz bat ibilaldi neurtua egiten da. Bi izaten dira: nagusiena, 21,900 km-koa, eta txikiena, 11 km-koa. Aurtengoan, halandabe, beherakadea igarri da partehartzaileen kopuruan.

Nagusien ibilaldian 132 bikotek parte hartu eben, horreetatik lauk proba amaitu barik itzi ebelarik. Nagusiak nahiko goiz hasi ziran, 8etan. Txikien ibilaldian, bestalde, 24 bikote ibili ziran, helmugara danak heldu ziralarik. Honeentzat, hasteko ordua bederatzi eta erdiak zan.

Lehenago esan dogun moduan, aurtun jente gitxiago ibili da, ze normalean 150-160 bikote egoten da. Arrazoiak, denporea, Herri Urrats Senperen... Batek daki.

Baina badakigu zer egin behar dan ibilaldi neurtu bat irabazteko edo behintzat postu on bat lortzeko? Gutxi gorabehera haxe da esplikazinoa. Nagusiak bete behar izan daben zirkuituan kontrolerako 3 gune dagoz, urteera eta helmuga dan tokia aparte. Bikoteak, bakotxa bere zenbakiagaz, gune horreetatik pasatzean, tarte bakotxa betetzeko emon daben denporea emongo dabe, eta tarte guztietan emondako denporeak orri baten idatzita itziten dira.

Bestalde, esan behar da, proba eguna baino lehenago antolatzaileetarik batzuek eginda daukiela zirkuitua, baita ondo neurtuta be bakotxak tarte desbardinetan emon dauazan denporeak.


Tarte bakotxeko denpora horreekaz bataz bestekoa egiten da, eta hori izango da, hain zuzen be, bikote partehartzaileek lortu behar dabena.

Aurretik jarritako marka horretara hurbildu beharko dira, nahi-taez, eta marka horreetatik gorako eta beherako denporak penalizazino bat eukiko dabe. Bikoteak lortutako penalizazinoaren arabera egingo da azkenengo sailkapena.

Esan behar da, antolatzaileen aldetik ondo jagoten dala bikoteen mantenua, eta horregaitik, bigarren kontrolean, indarrak errekupeatzeko tokia dago, edari eta frutakaz.

Txikien zirkuituari jagokonez, esan dogu laburragoa izan dala (11 km), eta kontrolerako gune bi euki dituala azpimarratu behar da. Horretaz aparte, klasifikazinoarako arauak bardinak dira. Amaitzeko, gauza bat. Orain, badakizue zer dan ibilaldi neurtu bat. Datorren urtean Deriokoa zuon zain eukiko dozue

Testua: Fernando Larrondo



uda honetan ere,
aek n ondo
euskara ikastaroak

zure euskara
berrindartzeko eta
zure azterketa
prestatzeko

izena eman
ekainaren 27a baino lehen

**txorierriko
aek euskaltegia**
tel. 944 543 967

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS PENTSU NATURALAK
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fca.org
Bazkideak: 144

**ALDIZKARIAN
PUBLIZITATEA
JARRI GURA
DUENAK DEITU
BAINO EZ DU EGIN
BEHAR**

TLFNOA: 94 452 34 47
686 58 92 38

E-MAIL: aikortxori@yahoo.es

BADATOZ SONDIKAKO SAN JUAN JAIK!!!

Aurten ere, ehundaka lagun hurreratuko dira Sondikako herritarrekin batera jai zoriontsu eta alaiak ospatzeko. Betiko moduan, kontzertuak, umeentzako jokoak, tortilla lehiaketak, sokamuturra eta antzerkiak izango ditugu ikusgai Sondikan. Horrela, bada, eta eguraldia lagun, dena dago prest jaiei hasiera emateko! Ondo pasa eta eutsi goiari!

EGITARAUA

Ekainak 20, osteguna

18:00etan, txupinazoa eta kalejira Elaiak taldearekin.
20:00etan, eskusoinu kontzertua Pentagrama taldearen eskutik eta Txuma Olagueren koroaren ikuskizuna.

Ekainak 21, ostirala

14:30etan, umeentzako jokoak izango dira Goronda Gane ikastetxeak antolatuta.
16:30etan, kalejira Elaiak taldearekin.
17:30etan, umeentzako antzerkia izango da, Goronda Gane ikastetxeak antolatuta.
19:00etan, sokamuturra eta ponyak, Viveros Pericak antolatuta.
20:30etan, umeen tortillen aurkezpena.
21:30etan, nagusien tortillen aurkezpena.
22:30etan, pilota partiduak.
23:30etan, berbena Drin-Dots taldearekin.

Ekainak 22, larunbata

11:00etan, kalejira Elaiak taldearekin.
12:30etan trikitri emanaldia.
19:00etan, herri kirolak.
23:00etan, su artifizialak.
23:30etan, Alaitz eta Maideren kontzertua eta berbena Sorbeltz taldearekin.

Ekainak 23, igandea

11:30etan, kalejira Elaiak taldearekin.
12:30etan, gaztetxoek pilota partiduak.
14:00etan, kazuela aurkezpena, Sukalki.
16:00etan, tabernen arteko mus txapelketa.
18:30etan, dantza ikuskizuna, Gorantzaileak taldeak antolatuta.
20:30etan, berbena Continente taldearekin.
23:30etan, Sanjuanada.
24:00etan, berbena Continente taldearekin.

Ekainak 24, astelehena

11:30etan, meza nagusia eta ohorezko aureskua.
12:30etan, kalejira, Elaiak taldearekin.
12:15etan, umeentzako jokoak.
13:30etan, jubilatuentzako lunch-a.
18:00etan, umeentzako jokoak.
20:00etan, erromeria, Alma Navarra taldearekin
22:00etan, azken traka eta jaien amaiera.

ONDO PASA JAJETAN !!!

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua




SOGECAR

Tratamendu Ierroak
-Erabilitako olioak
-Agortutako taladrinak
-Disolbatzailak
-Automozio
hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragolti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

Floristeria Jodia



Floralien, Buzkaien, Gortzen, Buzkaien
Buzkaien, Buzkaien, Buzkaien



Floristeria Jodia
Buzkaien, Buzkaien, Buzkaien
Buzkaien, Buzkaien, Buzkaien

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalte, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

S.A.T. LEGY



LEZAMA
Gaitoliza Auzoa, 36
48195 LEZAMA - Bizkaia
Tel. 94 455 61 98
Fax: 94 455 66 17

Liliak



Liliak
Liliak, Liliak, Liliak
Liliak, Liliak, Liliak

Liliak
Liliak, Liliak, Liliak
Liliak, Liliak, Liliak

ETXAHUN LEKUE IPAR URIBEKO BERTSOLARI TXAPELDUNA

Txorierri, Mungialdea eta Uribe Kosta batzen dira Ipar Uriben. Eta Bizkaiko bertsolari txapelketarako sailkatzeko, eskualdeka txapelketak egin dira.

Gure inguruan hiru saio egin dira aurtan: bi sailkapen saio eta Getxon burututako finala.


Gatikan saio bat egin zan, eta bestea Lezaman giro ezin ederragoan egindako bertso afaria. Azken honetan 60 bat lagun afaltzen egon ziren eta sekulako giroa egon zan osteko bertso saioan.

Finala maiatzaren 11n jokatu zan Getxon, Algortako San Nikolas ikastolan, eta bertan Etxahun Lekue izan zan onena. Beragaz batera aritu ziren Xabier Paia algortarra, Miren sopeloztarra, Ortzi Garitano Deriokoa, Asier Legarreta eta Miren Ibarluzea mungiarrak, Aitzol de Castro leioarra eta Josu Landeta getxoztarra.

LEZAMAKO GIMNASTA GAZTEAK

Maiatzaren 12an, zortzi urtetik hamar urte bitarteko nesken gimnasia lehiaketa egin zen Zornotzako kiroldegian, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Gimnasia Federazioak antolatuta.

Lezamako neska talde bi aurkeztu ziren, eta nagusien taldeak finalerara heltzea lortu zuen. Zorionak neskak, eta segi aurrera!



“BIBA XIBEROA!” EKIMENA LARRABETZUN

Zuberoa da Euskal Herriko herrialderik txikiena, Euskal Herriko ekialdean. Bertan euskararen eta ekonomiaren egoera larria denez, Xiberoa garatzen ekimena jarri da abian Euskal Herrian. Larrabetzun be “Biba Xiberoa!” lemape horretan talde sendo bat hasi da lanean.

Xiberoa garatzen horretarako diru bilketa handia egin da herrian, kamiseta ugari saldu dira Biba Xiberoa! lelodunak eta Zuberoara irteera bat be egingo da ekainean. Guztira, 60 lagun baino gehiago joango da bertako errealidadea ezagutzera. Maiatzaren 18an ekitaldi bitxi bat egin zan guzti hori azaltzeko Larrabetzuko plazan.



Errementeeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**ALDIZKARIA JASO
GURA DUENAK
DEITU BAINO EZ
DU EGIN BEHAR**

TLFNOA: 94 452 34 47

EDO

**E-MAILEZ ESKATU
aikortxori@yahoo.es**

cianoplan s.a.
 Elkartekologia 105 z/b
 48170 Zamudio
 Tfnoak 944 20 97 91
 944 20 97 87
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
 Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

GAZTELUMENDITIK BERREAGARA

Pentsau deigun egun oso bat daukagula guretzat, egun ezin ederragoa egiten dauela. Ba zer osansuntsuagoa ibilbidetxu bat egitea baino? Gauza bakar bat behar dogu: nahi izatea.

Testua: Arantzazu Mendiguren

Mendi Gailur taldeak Gaztelumenditik Berreagara doan ibilbidea proposatzen deusku. Txango hau Lezamako plazatik hasiko da. Hortik Goitioltzara daroan bidea hartuko dogu eta Goiko tabernako aldapa pasau ostean, Basabaleko bidetik abiatuko gara. Basabaleko baserrian bidea amaitzen da eta guk aurrera doan pista hartuko dogu, Basabale erreka albo batera itxita.

Hortik gutxira, Gaztelura doan pista helduko gara. Hemen ezkerretara Gaztelumendirekin (324 m) topauko gara eta hortik zuzen abiatuko gara bere gailurrera, orain dala gitxi pinu botatako alderditik.

Gaztelumendin geldialditxo bat egin ahal dogu, nahi izanez gero, indarrak hartzeko eta bide batez gerra denborako hiru bunker eta 36ko gudan hildakoen aldeko monumentu frankista ikusteko.

Gaztelumenditik bidea hartu beharrean, gailurretik mendebalderantz doan bidea hartzen badogu, errepidera helduko gara laster. Bide honi jarraituta, Fika eta Lezama artean dagoen Urruztimeneko mendatara joango gara. Hemen errepidea utzi eta norabide berdina duen pistatik abiatuko gara. Ezkerretara Txorierrri bailara daukagu eta eskoatara Mungialdea.


Kilometro batzuk egin doguz Gaztelumenditik eta bidea estutzen doa. Ia ez da nabaritzen, baina pitika-pitika Berreagara igotzen hasi gara. Ia hiru ordu pasau dira eta Berreagako gailurrean gaude. Gailurra bera ostalduta dago eta sasiartean dago mendi honen tontorra (364 m).

Behin geure helburua bete ondoren (Berreagara heltzea), jatsi egin behar dogu. Horretarako, etorri garan bidetik buelta emon eta handik 15 minutugarrenean,

barriro bidexka pista bihurtzen dan lekuan, eskoatarantz jasten dan pistatik joango gara. Pista honetatik Jule auzora helduko gara.

Hemendik errepideari jarraituta, Zamudioko Parke Teknologikora helduko gara eta hemendik Lezamarantz joango gara.

Egun eder hau honela amaituko da: mendiaz gozatuz eta gainera, atea joka dabilen udarako geure gorputz ederra prestatzen.



OSKARBI
fotografoak

IRUSHIA ATZEZ-ATZEA

TAL. ERRIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 097
E-mail: oskarbi@euskaltel.net

HOTELA
JATETXEA

ENTER + BOUTE

Oliver Cruzgasturiza
Arreaga azoka 62
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 453 41 57
Faxa: 94 453 41 36
E-mail: hacienda-arreaga@telefonos.net

GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

Makina Hedakuntzarako, 1 - Ibaeta Nervión, 3 - 8º - 43pl. 15-2
Telefonoa: 94 453 33 28 Telefonoa: 94 423 42 42
Faxa: 94 453 50 Faxa: 94 423 61 70
48170 ZAMUDIO - Bizkaia 48901 HUI HALL

TXAKOLINA
LUISARRE

11% Vol. 75 cl.

Garmintza, 87
Tel: 94 455 65 41 **Bizkaito Txakolina.**
670 87 37 36

Victor Garmintza Garmintza bidia, prestatu eta botatzen

LEZAMA-BIZKAIA
N.R.E. 48/40538/781

POLIXENE TRABUDUA,

mitinlari eta emakume ospetsua



Larrinagako espetxean, Haydée Agirrere mitinlariarekin

Polixene Trabudua Sondikan jaiotako mitinlari eta emakume ospetsua da. Bizitza guztia bere idealengatik borrokatuz aritu da, eta horrek buruko min bat baino gehiago ekarri dio, izan ere, ideal horiek kartzelara eramane zuten 1933. urtean, eta 40 urte baino gehiago eman behar izan zituen Venezuelan erbesteraturik.

Gaur egun, borrokalari sutsu eta adoretu hau Zeberion bizi da Unai bere semerik gazteenarekin.

Testua: Maite Aranburu

Nondik dator Polixene izena?

Nire amak seme bi izan zituen ni jaio baino lehen, baina biak erditzean hil ziren. Beraz, ni jaiotzean, bizirik baina larri samar, aitak elizara eroan ninduen bataiatu eta arima behintzat salbatzearen. Dirudienez, momentuko presekin, ez zitzaion ezelako izenik bururatu eta abadeari galdetu zion. Honek, egun hartako santuaren izena ipintzea aholkatu zion eta aitak Greziako jainkosa baten izena —Polixene— jartzea erabaki zuen.

Garai hartan emakume gutxi ikasten zuten...

Hori egia da, baina etxean ikasteko aukera eskuratu zidatenean, ezin ezetz esan! Zazpi urte nituela hasi nintzen Sondikako eskolan ikasten. Gero, Bilboko

Ronda kalean zegoen Hijos de la Cruz-en urteak egin nituen eta Magisteritzako ikasketak burutu nituen. Ikasketak amaitzean, Sondikan Portu berri zegoen ikastolan lanean hasi nintzen.

Zelan ezagutu zenuten elkar Josek eta zuk?

Bikote askok erromerietan ezagutzen zuten elkar, eta Jose eta neu ere dantza egiten maitemindu ginen. Txorierriko gazte gehienak Asuara joaten ginen igande arratsalde guztietan dantza egiten. Bi etxeren artean zegoen patio antzeko batean doinuak, biribilketa eta pasodobleak dantzatzeko genituen. Sofia eta Elena nire lagunekin plazan nengoela, hara non gerturatzeko zaidan mutil galant bat dantzatzeko ote nuen galdezka. Laster jakin nuen gazte

xarmant hura Jose de Mandaluniz Galdakaokoa eta Athletic-eko jokalaria zela.

Garai hartan, 16 urterekin, Magisteritzako hirugarren kurtsoan nengoen eta gurasoek ez zidaten senargairik hartzen uzten ikasketak amaitu arte, eta, beraz, erdibideko aukera hartzea erabaki genuen. Horrela bada, Josek astegunetan Bilboko akademiatik trenera laguntzen zidan. Bost urte pasa ondoren eta 21 urte betetzen nituen egun bereberean ezkondu ginen Begoñako basilikan.

Zuen ezkontza ez zen nolanahikoa izan...

Jose de Mandaluniz, Athletic-eko jokalaria izanik, oso famatua zen, eta nik mitinlari moduan gero eta garrantzi gehiago

hartzen nengoan, horregatik, gure ezkontza ohikoa baino "zaratatsuagoa" izan zen. Txistulari eta danbolinteroak, ezpatadantzariak, berrehun gonbidatu Artxandako Jauregizar jabetxean bazkaltzen...

Eztei bidaia ere garai hartarako luxuzkoa egin genuen, izan ere, Donostiako Maria Cristina hotelean gaua pasa eta handik Bartzelona, Mallorca, Valentzia eta Madrilera egin genuen. Itzuleran, nire aita zenak, Prudentzio Trabuduak, Sondikan eraikitako etxean jarri ginen bizitzen.

Zelan sartu zinen abertzaletasunaren giroan?

Jose de Mandalunizen eraginpean hasi nintzen abertzalezen, nire familia monarkikoa baitzen, berea, aldiz, guztiz nazionalista. Elkarrekin ibiltzen hasi ginenean, Primo de

Riveraren diktadura garaian, abertzaletasuna goraka zihoan. Gazteentzat erakargarria gertatzen zen joera hura, politika hutsetik haratago, kultura eta harremanen aldetik sare aberatsa eskaintzen baitzuen: Mendigoizaleak zirela, Emakume Abertzale Batza, antzerkiak...

Ikasketak amaitu bezain laster Sondikako ikastola sortu berrian andereño izendatu zidaten eta han jardun nuen ezkondu aurretik nahiz ondoren, gerra

lehertu arte. Horretaz gain, Bidebarrieta kaleko batzokian euskarazko eskolak ematen nituen, besteak beste, Lauaxetarekin. Bera izan zen nire lehenengo mitina ematen animatu ninduen!

Mitinlari izateak arazo asko ekarri dizu...

Bat baino gehiago! Kartzela, erbestertzea...

Zergatik kartzelaratu zintuzten Larrinagako espetxean Haydée Agirre eta zu?

Mitin batean independentziaren alde aritu izana leporatu ziguten eta horregatik hamabost egun kartzelaratu ziguten! Oraindik ere, ondo gogoratzen dut zelan 1933ko urtarrileko goiz hotz batean, eskola ematen ari nintzela, ikastola aurrean auto beltz handi bat geratu zen. Hiru polizia etorri ziren nire bila Indautxuko komisariara eramateko.

Han zegoen jadanik Haidée. Handik, eta ezelango azalpenik eman barik, Larrinagako kartzelara eroan gintuzten.

Nonbait, Errepublikako agintariei ez zien mesede handirik egin gu bezalako mitinlarien espetxeratzeak, kartzelaldia abertzaleen aldeko propaganda bihurtu baitzen.

"Mitin batean independentziaren alde aritu izana leporatu ziguten eta horregatik hamabost egun kartzelaratu ziguten!"

Kartzelan egon ostean mitinlari izaten jarraitzeko gogorik zenuen?

Kartzelako egonaldia ez zen inondik ere gustukoa izan, baina handik indarberriturik irteten nintzen. 1932ko urrian, Eusko Alderdi Jeltzaleko aldizkarian, Jagi-Jagin, idazten hasi nintzen, eta Larrinagan nengoela ere, pare bat artikulua idatzi nituen. Ez nuen ezelan ere indarra eta adorea galdu nahi.

Giro politikoa gero eta krudelagoa izanik, zelakoa zen zuen etxeko egoera?


Oso zaila da gerrak iraun zuen bitartean familian eta herrian bizi izan genuen egoera azaltzea.

Erraietaraino, odolerraino sartutako izua sentitzen genuen. Zurrumurruek, eta irratitik faxistei buruz entzuten genituen berriek odola izoztu egiten ziguten.

Gainera, nire senarra 1936ko urrian Eusko Gudarosteko batailoien arteko bitartekari moduan hasi zen. Sondika helburu militarra zen, bertan zegoelako Bizkaiko aireportu bakarra, eta nire aita zenak, Prudentzio Trabuduak, familia hartu eta Gernika aldeko baserri batera joateko burubidea hartu zuen.

Bitartean hiru seme alaba izan zenuen...

Egia da, Gernikara joatea erabaki genuenerako jaioak ziren Eguzkiñe (1933ko ekainean jaioa), Joseba (1935ko uztailan) eta Unai (1937ko martxoan). Ez zen erraza izan egoera horri aurre egiteak hiru ume txiki izanik eta gizona frentean



ERDU GEUGAZI! UDAKO IKASTARO TRINKOAK

MATRILULATZEKO EPEA: EKAINAREN 10ETIK 25ERA
BULEGO ORDUTEGIA: 13:00ETATIK 20:00ETARA

TXORREARRAKO UDAL EUSKALTEGIA

Herriko Plaza, 3 - 48160 DERIO (Bizkaia) - Tel. 944 54 00 82 - Fax: 944 54 27 38
E-mail: euskalggl.txorriem@bizkaia.org

zegoela. Baina asko geunden egoera bereberean! Horrezaz gain, garai gogor horretan, baserrira joateak ume zein famili osoaren bizitzan lasaitasun apur bat ekartzeak suposatzen zuten.

Gernikako bonbardaketa ere zuzenean ikusi zenuen...

Hori gogoratzeak oraindik urduri jaritzen nau! Arratsaldeko hirurak aldera, sondikarrek Alcahuate deitzen diogun hegazkin txikia azaldu zen eta baserri gainean itzuliturua egin. Harrituta geratu ginen, hegazkin horiek bonbarderoei helburuak erakusteko erabiltzen ziren eta. Ordu erdira edo, hiru hegazkin handi agertu ziren. Bat-batean, herriaren parean, hara non askatzen dituzten bonbak eta etorritako tokitik alde egiten duten. Minutu gutxira han datoz berriro.

Oraingoan, bonbak bota eta gero, beste buelta bat eman zuten Gernika gainean, herritik kanporantz ihesi zihuan jendea metrailatuz. Eta horrela arratsalde osoan. Zerua ere ilundu egin zen, gorantz zihozten gar eta kearekin. Dena ilun eta isilik geratu zen. Isiltasun arraro bat. Bonben eta metrailetaren zarata baino gehiago, Gernikako bonbardaketaren ondoren zabaldu zen isiltasun hura geratu zait oroimenean betirako.

“Zerua ere ilundu egin zen, gorantz zihozten gar eta kearekin”

Sondikara itzuli ostean, berriz ere ihesi...

Gau batean senarra etorri zitzaidan Francoren soldaduak Artebakarrara iritsi zirela eta, ihes egin beharrean geundela esanez. Zailtasun handiz, baina Bilboko portuan zegoen Goizeko Izarra itsasontzira heltzea lortu genuen. Azkenean, Donibane-Garazira heltzea lortu genuen. Bertan, Sondikako ikastolako ikasleekin egin nuen topo, izan ere, Jaurilaritzak gerratik ihesi irtendako haurrentzako egonlekua antolatu zuen bertan. Gerra bukatzean, Europan giroa bero-bero zegoela eta, Parisera joan ginen. Bitartean, Naya jaio zen (1942ko otsailean). Berriro ere gerra bukatzean Bilbora buelta egin genuen, baina urte biren ostean, eta bizitza apur bat lasaitu zela uste genuenean, Frankismoak ez zigun behar bezala bizitzaren uzten eta urte bi eta erdiren ondoren berriro Frantzia ginen.

Azkenean zelan agertu zineten Velezuelan?

Joseri Caracaseko Deportivo Vasco ekipoa entrenatzea eskaini zioten. Beraz, harantza joan ginen. Maracaibon egin ditugu azkeneko berrogei urteak!

Zelakoa zen bertako bizitza?

Ezin naiz kexatu! Oso momentu onak igaro ditugu bertan. Esan dezaket familia erabat errotu zela bertan.

Venezuelan gerrarekin galdutako lanbideari heldu ahal izan zenion...

Hasieran, haur eskola batean aritu nintzen, eta gerora, Sabanetako kartzelan



kondenatuta zeudenen irakasle bezala aritu nintzen. Esperientzia ikaragarria izan zen baina oso pertsona ezberdin eta interesgarriak ezagutu nituen!

Gainera idazten jarraitzeko aukera ere izan nuen Maracaiboko Panorama egunkarian.

Liburuak ere idatziak dituzu...

Artículos de amama liburu idatzi nuen, eta geroago, Crónicas de Amama. Bertan, bizitzako gorabeherak azaltzen saiatzen naiz, Euskal Herrian egondako denborako oroitzapenak eta Venezuelakoak.



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



EZPALA

ZARRATU ETA
EGURREZKO ERAIKUNTZAK
TRABESEN SALMENTAK

☎ 659 18 68 03 - 670 04 09 07
(DERIO)



**CANTEROS
TRIKUHARRI**

HARRI NATURALA
KOKATZEA ETA LANTZEA
BASERRIAK BERRIZTATZEA

Unbexiki, 3
Tfno mobila: 670 51 80 98
48180 LOIU (Bizkaja)



Ez zen garai erraza izan. Bonbardaketak zeudenean elizako kanpandorrera joaten ginen babes bila. Han geratzen ginen hegazkinak desagertzen ziren arte.



Gerra denboran hamalau urte baino ez nituen eta ez daukat horri guztiari buruzko gomuta handirik, baina gure etxean osaba batek bizia galdu zuen frentean zegoela. Hori izan zen latzena.



Nik ez nuen guda garaia bizi, baina etxekoek larrialdi bat baino gehiago pasa behar izan zuten, izan ere, nire neba nagusia frentean hil zen. Horrezaz gainera, askotan entzun dut etxean zelan bonbardaketaren trenbidearen tuneletan sartzen ziren. Garai latzak.



Nik ez nuen guda garaia Euskal Herrian bizi. Estremadurakoa naiz eta berrogei urte daroguz emazteak eta biok Derion. Horretaz gain, garai hartan izugarrizko gosea pasa nuen. Egun asko ematen genituen ezer jan barik, baina gutxienez, ez zen hildakorik egon etxeokoen artean..



Orokorrean, gose askoko denbora zela esan daiteke! Etxe gehienetan pasa zituzten kalami-dadeak zer edo zer ahora eramateko!



Gure etxean ez genuen arazo handirik izan, baina jende asko etorri zen gurera babesleku bila. Noizean behin Axpe eta Dima aldeko pertsona batzuk etortzen ziren etxera babesleku bila.

WASCOLAC S.L.
30170 Zamudio (BIZKAIA)
94 452 23 36 faxo.





Utakalan behar bezala erosiagaz egunean egunean GAILLA gazta irea
ATULLA San Jakobeko eta kuxkak
BANAKETA DENEZTARA, JATETXEETARA,
TABERNETARA ETA JATOINETARA
Hainbat kuxkal produktuen distributza:
edonon moiden kuxkak, txemizak, mendirikak, txakurak, pa-

EGUN BATEKO AZOKA,

**Maiatzaren 12a da, domeka,
DERION ELIKAGAI ETA ESKULAN AZOKA
dago iragarrita**

Goizeko 9etan, Derioko Gernikako Arbola etorbidera hurbildu gara. Argi dago ez dela domeka arrunta. Kalea itxita dago, alde bietatik aterpedun postu luzeak, artez-arteaz ipinita. Kale amaieran, Institutu eta eskola parean karpa bat, eta jaima antzeko bi. Apur bat aurrerago kaiola handi batzuk.

Loren postua

Testua eta argazkiak: Jose Angel Mentxaka

Furgoneta bat etorri da, gaztaz beteta, sarrerako hesian gelditu eta bere izena eman du, antolatzailetako batek zerrendan konprobatu ostean, pasatzen utzi dio. Bere postua betetzera joan da, dena txukun jarri ondoren furgoneta atera du. Laster barazkiakaz datorrena, Derio bertakoa.

Hurrengoa Nafarroako matrikuladuna, ziur antzean esparragoduna izango da. Honela sartzen dira txarkuteria, ogi eta tartak, pateak, oiloak..., beste horiek oso gazteak dira eta landarakaz datoz, Nekazaritza Eskolakoak ei dira, traktore batzuk ere agertu dira, barri-barriak erakusketarako.

Bezperako antolakuntzak

Banaka batzuk lehenagotik dagoz. Martxa noiz hasi den galdetu dugu, eta honela diosku antolatzailetako batek : "6etarako hemen egon behar da dena prest dagoen konprobatzeko. Gau osoan zinpeko guarda bi egon dira inork ezer txarrik egin ez dezan, txakur baten laguntzaz badaezpada ere".

"Atzo be lana egon zen. Udaletxeko langileak ez aparkatzeko kartelak jartzen eta kaleak ixten. Beti egoten denez despistaturen bat, garabiarentzat ere lana zegoen automobilen bat tokiz aldatzeko. Karpa eta "jaimak" kenduta -horiek goizean muntatu ziren-, kalea hutsik

zegoen arratsaldeko 5etan. 6etarako, oster, postu guztiak jarrita zeuden, eta ez dira gutxi, 100 inguru .

Baina ez zen San Isidroren mirakulua izan, langile brigada agertu, dozenatik gora, kamioietatik tutuak, olak, toloak, jaitsi, jarri.... eta joan egin ziren"

"Aurten kaiolak muntatu behar izan doguz. Alde batetik "emu"-ak sartzeko, ez dabe askorik behar. Baina beste kaiola pauma edo pabo erreala eta faisaiantzat da eta esan deuskunez azken hauek dira bihurrienak eta zirrikitu guztiak ondo itxi behar dira, goitik be."



BIDE-GORRI
Cafe-Bar
Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
30 minutuko prekiak
Tortosa Kalea, 9
(Aste TARDUEN (Bilakaia)) Tel. 94 454 06 75



Amaiketakako
Atertu las 2 dias de la semana
• Eguneko Menuak
• Kizkizketak
• Oliboko Erreta
• Karta Zabala
Urdin Kalea, 1 Bijo - DERIO
Tfno. 944 510 106



CAFETERIA iAZi
Eguneko menua eta
Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bilakaia)

EGUN ASKOKO LANA

Azken orduko sorpresak

10ak dira eta ondo antolatutako desordena ematen du, bakoitza berera doa. Beti sortzen dira azken orduko sorpresak. Derioko emakumeen eskulanak jartzeko eta herriko artisten erakusketarako karpa jarrita dago, baina ez dago mahairik!! Furgoneta hartu eta korrika dau den lekutik hartzera.

Edo hegaztidunak datozela eta komen-tatzen dute kaiolaren alboak ondo daudela, baina ez direla fidatzen goiko sareaz, mehe-egia dela eta faisaiak apurtu dezaketela. Korrika sare gehiago jartzera, zegoena indartzeko.

Askatzen dituzte azkenean "paumak" eta arazorik ez, askatzen dituzte faisaiak eta, esan bezala saltoka hasten dira, hegaz gurean, sarearen kontra. Badirudi behar beste gogor dagoela. Eskerrak!

"Eguraldiaz ezin gara kexatu behintzat, aste osoan hotza eta euria egin arren, gaur itzelezko eguna irten da. Hasi da jendea hurbiltzen, hasieran banaka batzuk, gero tropelka"


10:30etan azken kamioia, poniduna, umeen gozamenerako. 11ak dira eta dena ia prest dago, txosnakoak talorako oreka egiten, txakolina edateko kopak mahai gainean jartzen, megafoniakoa ezarria berotzen...

Noiz hasi da prestakuntza?: "Orain dela hiru hilabete dugun zerrenda batetik hasi behar izan dugu aukeratzen, banan-banan deitzen, azken egunetan konfirmatzen... Gure irizpide nagusia da produktore bera ekartzea, ez saltzaile soilak, posiblea den neurrian Txorierrri eta Bizkaikoak izatea eta urtero nobedadeak egotea"

Zenita eta amaiera

Jendea besterik ez da falta. Eguraldiaz ezin gara kexatu behintzat, aste osoan hotza eta euria egin arren, gaur itzelezko eguna irten da. Hasi da jendea hurbiltzen, hasieran banaka batzuk, gero tropelka. Egurdiko ordu biak arte lasai ibili eta erosi daiteke, txakolina dastatu be, 4 euroren truke kopa erosi eta gura beste edan. "Bertoko" taldekoak jo ta ke ari dira giroa alaitzen.

Ordu bi eta erdietan jende gainezka dago azoka, ez da hain erreza ez ibiltzea, ez erostea, ez talo eta txorizoa jatea. Handik lasterrera kopak amaituko dira, taloa eta apurka-apurka azoka bera ere bai.



Emua prestatzen degustaziorako

Baina ez, ez da amaitu, desmuntatu egin behar da. Badoaz saltzaileak, gehienak pozik polito saldu dutelako. Arratsaldean atzoko brigada etorriko da laster eta dena eroango du, garbitzaileak ostein.

Bihar, astelehena da eta "egunerokotasunera" itzuli behar da kalea. Datorren azokara arte behintzat.

ARTIZAR
MARKOA JARTZEKO TALERRA

Txesto Aguirre, 3 48150 SONDIKA Bizkaia
Tfn. 94 453 01 50

PATXI 6009 T.I.
Concesionario Zamudio

Mahou
Carlsberg

Tfn. 94 452 25 87
670 87 37 34
Ugaldesparen Industriak I
48150 ZAMUDIO Bizkaia

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Barrio Salda de Juncos, 5 - Barrio de San Blas, 1 - 48011 90 9003
Telefonoa 94 450 80 10 - faxa 94 450 87 12
Zamudioko Polizia: Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74

DERIO FRUTADENDA

Sollube, B
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

KIM
Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gomeloa 58 - Tel. 95 455 51 00 - Fax: 95 455 61 77
48946 LUCAMA (BIZKAI)

KOOPLADI

TRASLOCATUAK - BANATZEKO TREKADAK - BABAI TALDEAK
DREI ARRI-MILLI PHISIKILLAK - INTERIMONIA/PIKAK
MANPARK- ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)

Leizaola, 10 - 48100 BILBAO
Telefonoa 94 452 14 11 - Faxa 94 452 17 46
KOOPLADI (BILBAO)



UDALEKUAK



Udagaz batera udalekuak jatorkuz ume eta ez hain ume diranen gozamenerako. Txorierriko herri guztietako udalek udako aisialdia modu on baten aprobetxetako aktibidade egitaraua prestaten dabiz euren herritarrentzat, batez be txikientzat. Gaur, Derioko udalerrian Nahaste Borraste aisialdi taldeak aurrera atara gura dauan Udako Kolonien proiektua dator geure orrialdeetara.

Duda barik esan geinke Derioko umeek badaukiela udako oporraldien zati on bat modu probetxosoan emoteko aukerea. Urtero lez, Nahaste Borraste taldeko neska-mutlak herriko umeei euren aisialdiari zapore desbardin bat emoten ahalegintzen dira.

Aurreko urteetan udaleku honeetan parte hartu dabeneen kopurua, bataz beste, 52koa izan bada be, aurten kantidade fijo bat jarri dabe, eta holan, 50 ume izango dira suerte hori eukiko dabena.

Baina, hasteko, argi itzi izan gura dabe arau batzuk errespetatu beharko dirala, udalekuetako kalidadearen eta antolaketaaren mesederako. Alde batetik, apuntatuta dagoan baten bat ez bada agertzen edota oso gitxi joaten bada, hurrengo batean ez dau izena emoterik eukiko. Bestalde, aurten kanpoan geratu diranak lehentasuna eukiko dabe hurrengokoetan.



50 umez egotea ez da, ez, brokatan hartzeko lana, eta horregaitik, bost monitore kontratatu dira. Atentzino berezia behar daben umeak monitore pertsonala eukiko dabe.

Udaleku honen helburu nagusia, Nahaste Borraste taldekoen berbetan, euskeraren eskolaz kanpoko erabilerea suspertzea eta umeen arteko hartuemonak, klean eta olgetan, euskeraz bizi izatea.



Beste helburu batzuk be aipatzen ditue; ingurugiroa jagon eta ezagutzea, kolektibidadea edo taldea indartu, umeek euren arteko talde hartuemonak errespetatu daiezan, esperientzia desbardinak ezagutzea talde baten barruan eta, batez be, dibertitzea eta momentu onak pasatea.

Derioko Udalak antolatutako udaleku hau garagarriaren 8tik 24ra iraungo dau, bitarte horretan hainbat jarduera dagozala. Euren artean azpimarragarrienak, hurrengo honeek:

-Cabárcenoko Parkera urteera, bertoko animalia eta piztiak ezagutu eta ikusteko. Urteera honetan umeei bideo bat emongo jake, bisitaldiaren oroiarri modura.



GAMINIZ
RESTAURANTE



AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologiko Tel: 94 431 70 25
Harrera 717 E-mail: gaminiz@euskaltel.net
48101 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestaurant.com

TORREKO TXAKOLINA




1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretxalde buzoa
48196 LEZAMA
Bizkaia

José Antonio Doñabellia ☎ 94 473 15 34
Pedro María Doñabellia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

ZAMUDIO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
COOPERATIVA AGRICOLA Y GANADERA DE ZAMUDIO DERIO
HERRI BOKATUEN ZERBITZUAK
Santi Mami auzoa, 1
Tel: 94 454 18 06
Fax: 94 454 15 11
EUSKAL ZAMUDIO (Bakoa)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Telefono 94 454 18 22
Alfonso Galdames 689 05 20 15



-Turtzioseko kanpamentua, nagusientzako baino ez dana izango. Bertan, izadia ezagutzeko eta kirolak egiteko aukerea edukiko dabe (kanoa, tirolina, senderismoa,...). Hiru egunekoa izango da.

-Ingurugiro eta Trenbidearen Museoetara urteerak: Azpeiti aldean, trenbide zaharrean ibiliko dira. Bertako ingurugiroa eta, bide batez, Euskal Herriko antzina-ko bizimodua ezagutzeko aukerea edukiko dabe.

Nahaste Borraste taldeak edozein istripuri aurre egiteko aseguru bat kontratatu dau.

Testua: Fernando Larrondo



U DALEKUKO EGUTEGIA



EGUNA	TXIKIAK	NAGUSIAK
Garagarrikak 8	Alkar ezagutzeko jokoak. Taldeko jolasak	Alkar ezagutzeko jokoak. Taldeko jolasak
Garagarrikak 9	Nor da nor? Jolasa Herriko Plazan	Nor da nor? Jolasa Herriko Plazan
Garagarrikak 10	Urteera: Cabárceno + Oparia	Urteera: Cabárceno + Oparia
Garagarrikak 11	Filminen tailerra	Filminen tailerra
Garagarrikak 12	Akelarrea	Akelarrea
Garagarrikak 15	Txikiak libre	Urteera: Turtzios
Garagarrikak 16	Tailerrak	Turtzioseko Kanpamentua
Garagarrikak 17	Uger egiten	Turtzioseko Kanpamentua
Garagarrikak 18	Jokoak eta Pijama gaua antolatzea	Nagusia libre
Garagarrikak 19	Rallya	Rallya
Garagarrikak 22	Marionetak eta ipuinak	Marionetak eta ipuinak
Garagarrikak 23	Urteera: Ingurugiro eta Trenbide Museoetara	Urteera: Ingurugiro eta Trenbide Museoetara
Garagarrikak 24	Azkenengo jaia	Azkenengo jaia

hormigones

de zamudio

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kamiak ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Torrelorregaiti ind., 2-9 • 48170 Zamudio • Bizkaia
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65
E-mail: hormizamudio@jazzfree.com

LIBRERIA SONDIA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, knademaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburua,
puzpuzgintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)

HARATEGIA

J. ELORRIAGA

Eltxeko berezitasuna: bertoko etiketa

Utterikastua, 7 biluzi • 94 455 89 41 LARRABETZU

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Zeure buruari galdetzen badeutsazu...
 ... nondik datozan eta zelan produzidu
 edo ekoiztu diran orain jaten dozuzan piperrak
 ... nora doazan landareei botatzen diran
 "produktu fitosanitarioak" (botikak)
 ... zergatik ugaltu diran horrenbeste
 zorriak sagarrondoan eta arrak azetan, eta ez
 bakarrik zelan akaba daitezuzan
 ... zergatik negutegiak eta lantegiak gero
 eta antzekoagoak diran
 ... zure osasuna zertan datzan
 ... ea elikagai batzuk horren merkeak
 izatea susmagarria dan
 ... zergatik gaur egun abereen satsa eta
 mindak kutsagarri bilakatu diran
 ... orain jaten dozuzan arraultza frijitu eta
 txorizoak lortzeko hazi diran txarri eta oiloak
 zelango bizimodua eduki dabe
 ...zelako lurra heredatuko daben zeure
 seme-alabak
 ...ordu, beharbada nekazaritza ekolo-
 gikoa interesetan jatzu

Zer da nekazaritza ekologikoa eta zelan sortu zan?

Kimika bako nekazaritza dalako ideia oso zabaldua dago. Baina askoz gehiago da. Orain 100 urte egiten zan moduan ekoiztea be ez da. Beraz, ez da nekazaritza erromantikoa, ezta nostalgikoa be.

Nekazaritza ekologikoaren aldeko mugimendu gehienak XX. mendeko bigarren erdian jaio ziran. Nekazaritza industrialak sortutako arazoak konpontzea zan euren helburua. Ikerketa zan, bilakaera.



NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN BERRIKATZETAKO KONGRESUA
 CONSEJO VASCO DE LA PRODUCCION AGRARIA ECOLÓGICA

Jaten dogun ia guztia nekazaritza industrialetik dator. Jakiak ekoizteko modu bakar bat dagoala emoten dau, ekonomiaren arauetara jarraitzen deusena.

Orduan beharrezkoa ete da kutsatzea, horrenbeste energia gastatzea, baliabide genetikoak galtzea (betiko landare motak adibidez), hainbat produktu kimiko erabiltzea?

Nekazari eta kontsumitzaile batzuk beste bide baten bila hasi ziran.

Gutxi gorabehera, orain 30 urte IFOAM deritzon nazioarteko erakundea sortu zan. Mugimendu ezberdinak antolatu eta alkarren arteko araudia sortu eben.

Gaur egun, Europako nekazariak arau batzuk bete eta kontrolpean egon behar dabe, "elikagai ekologikoak" izena erabiltzeko. Produktuetan aurkitzen dogun etiketa baten bidez ziurtatzen da nekazarien lana. Arau horietan (2092/91 CEE) sintesi produktuak (ongarriak zein fitosanitarioak) ez erabiltzea eskatzen da, baina ez hori bakarrik.

Txorierrin nekazari ekologiko bat dabil lanean, Goikolexea auzoan, eta laster beste batzuk hasiko dira beste produktuak eskaintzen. Derioko Nekazaritza eskolako ikasleak be honetaz ikasteko aukera daukie.

Praktikan zer teknika erabiltzen dira?

Oso gatxa da berba bitan esaten.

Baina ortu txikia daukientzako aholku batzuk emon geinkez:

- Lurra zaindu: zikloa itxi, abeltzaintza eta nekazaritza lotu: lurraren emankortasuna lortzeko baliabide nagusiak satsa eta ongarri berdeak doguz. Satsaren maneia kontu handiz egin behar da: abere osuntsuek sortutakoa eta ondo konpostatua (ez bakarrik zaharra edo heldua, ezpada ondo eginda). Ongarri berdeak landareak dira: oloa, zalgea, babak, hazitakoan lurrarekin nahasten dira ongarritzat.

- Lur analisiaren bidez jakin geinke behar edo eza konkreturik dagoan. Egoteotan haitz txikituak edota beste

produktu mineral naturalak (kare-harria, edo dolomita, adibidez) bota geinkez, baina ez sistematikoki.

- Aniztasuna lortu beharra dogu: errota-zioak, (ez errepikatu barazki berdina toki berdinean), landare mota asko hazi.

- Ahal danean lurra estali zuhaitzen azal zatiekaz, edo bedar sikuakaz, edota beste material organikoakaz. Bedar txar gitxiago azalduko da eta euriaren eragina lurrean leunagoa izango da.

Zer egin izurriak azaltzen diranean?

Egin beharko litzaken itauna beste hauxe da: "Zelan egiten dozu nekazaritza ekologikoan botikak ez botatzeko edo izurri larriak ez edukitzeko?"

Eta erantzun orokorra izan leike: "Oreka eta aniztasuna berreskuratzu". Praktikan zer? Ba...

- Hesi bizi bat landatu bazterretan: Zorriak eta insektu kaltegarriak jaten dabezan zomorroek babesa eta bizitzeko lekua aurkitzen dabe bertoko zuhaitz eta zuhaixka askotan, adibidez: intsusa, hesilaharra, ereinotza, baserramua, zumeak, elorri zuria, zuhandorra, txorbaltza, astalarrosa eta hainbat... Holako landare txiki interesgarriak ere badaude.

- Txori intsektujaleentzako egurrezko habi-kutxak jarri inguruan (txori laguntzaileak baino ez sartzeko zuloaren tamaina garrantzitsua da: amilotzarentzat 27 mm-koa, kaxka-beltzarentzat 32 mm-koa, adibidez.

- Izurriei ihes eragiten deuten landara usaintsuak landatu (asentsio, berakatz, kaputxina...)

- Izurriak agertzekotan (zorriak, harrak...) badagoz erremedio biologikoak; adibidez landaretatik ataratako produktuak, guban eraginik ez daukienak.

Baina gure osasunagaz gertatzen dan legez, erremediorik onena prebentzioa da, eta horretarako, norbera eta natura ezagutu beharra dago.

Testua: Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi)

TXORIERRI
Inmobiliaria

ZEHATZAGANDIN GEURTUEN DUTZEN INMUEBLARIAKIA
 AHHUEKULARITZA - TASAOTIA
 AHHUEKULARITZA - TASAOTIA
 AHHUEKULARITZA - TASAOTIA
 AHHUEKULARITZA - TASAOTIA

Barrio Ajuria, 2-30000000 - TITUTIA
 Tel: 94 454 07 01 - 94 454 07 01
 E-mail: txorierri@txorierri.com

Giber
Derio

MUNGIALDE, 11 - MUNGIA RIDEA

94 454 07 01

ETORRI INUSTRIA. LE ZARA DAMUTUKO!

ne
ilopaindegia

adibideak gurekikoan inbentarioa
 adibideak gurekikoan inbentarioa
 adibideak gurekikoan inbentarioa
 adibideak gurekikoan inbentarioa
 adibideak gurekikoan inbentarioa
 adibideak gurekikoan inbentarioa

19

Jose Angel Bilbao, Idi probetan beterranoa

San Isidro egunean eman zitzaion hasiera idi proben denboraldiari gure inguruetan. Horrela, bada, kirol honetan dihardutenek hilabete batzuk dituzte aurretik, euren idiak egiteko gai direna erakusteko. Idi probetan dabilen horietakoa dugu Jose Angel Bilbao. Lekunberri baserrian jaiotako zamudioztar hau txikitatik egon da idien munduan murgildurik. Animalia hauekin 33 urte eman ostean, oraindik ere indarra dauka animalia pisutsu eta bikain hauekin lehiatzen jarraitzeko.

Jose Angel Bilbaoren laguntzailea San Isidroko proban

Zaila da idi probetan aritzea?

Denbora asko daroat idiekaz lanean, beraz, ez zait zaila iruditzen lehiaketetan aritzea, nahiz eta idi onak, lehiatzeko ondo prestatuak lortzeko denbora eta esfortzu asko egin behar den.

Zelakoa da idien eguneroko beharra?

Goizean hasita, jana eman ostean, kanpora ateratzen ditugu banan-banan garbitzeko. Arrastian, oster, entrenatzeko garaia da. Beste kirolen bat izango balitz moduan, idiak ere entrenatu egin behar dira, sasoi onean egon daitezen.

Zertan datza entrenamendua?

Sei idi dauzkat eta egun guztietan entrenatzera erorten ditut. Entrenamendua

alboko soroetara joan eta lurrari buelta ematea da, traktore batek egingo lukeen legez. Gainera, auzokideek idiak euren lurretan guk nahi beste entrenatzen uzten digute.

Horrela entrenatu ostean, noiz esan daiteke idi bat prest dagoela probetan aritzeko?

Probetan hasteko adinik gomendagarriena 7 edo 8 urtekoa da, nahiz eta batzutan, idiaren tamaina egokia bada eta konpetitzeko prest badago, sei urterekin ere has daiteke.

Janari berezirik behar dute?

Pentsua, garagarra eta belar sikua. Inoiz ez diegu belar berderik ematen animaliei.

Zelako idi motak daude?

Klase askotakoak daude. Esaterako, nik terreñoak, suizoak eta asturianoak dauzkut.

Euren arteko ezberdintasuna tamaina da, batzuk besteak baino gehiago handitu daitezke eta.

Idi probek dirua ematen dute?

Baietz esan behar da, baina idiak zaindu ere egin behar dira.

“Beste kirolen bat izango balitz moduan, idiak ere entrenatu egin behar dira”

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallerrakalea. 5 ZAMUDIO
Telefonoa: 94 452 12 73



Entrenamendi, 14 - 48150 Sondika
Telefonoa: 944 351 928



HARAGITIEGIA
ALBERTO

Txorierri etorbidea. 5
Telefonoa: 452 08 28
48016 ZAMUDIO (Bizcaya)

“Lehenago, idia nekatzean, edozein modutan ematen zitzaion egurra. Orain, arauak aldatu egin dituzte eta ezin duzu idia akuiluaz jo denbora guztian, markatu baino ezin duzu egin”

Diru aldetik, kostu handikoa da idiak zaintzea?

Gehien kostatzen dena idiak lortzea da, bertoko idi gutxi dago eta. Lehen gehiago zeuden, baina jendeak idiak hazteari utzi dio. Gu apurka-apurka hasi gara bertoko behiekin idiak hazten. San Isidroko proban aurkeztutakoak, esaterako, etxean jaiotakoak ziren.

Oso garestia da kanpoko idi bat ekartzea?

Bai. Urte biko idiak 400.000 edo 500.000 pezeta balio izan dezake. Gainera, hezi barik datoz. Ez du merezi kanpotik ekartzeak. Guretzat hobe da idiak etxean hazi eta bertan hezteak.

Zenbat urte egin ditzake idi batek probetan?

Bi edo hiru urte inguru egin ditzake probetan. Handik aurrera, normalean harria tiratzeaz nekatzen hasten dira eta ez dute kirolean jarraitzeko balio.

Idiak zahartzean, zer egiten duzu eurekin?

Probetan 6-8 urterekin hasten dira. Urte bi pasa ondoren, gutxi gorabehera 9 dituztenean, kirol mundutik baztertu eta idiak loditzeari ekiten diogu. Zahartzen direnean, hil eta okela saltzen dugu. Gainera, Gabonetan asko eskatzen dute idi okela.

Jende askok ez du begi onez ikusten idiak jotzeko ohitura...


Orain nahiko ondo kontrolatuta dago gai hori. Lehenago, idia nekatzean, edozein modutan ematen zitzaion egurra. Orain, arauak aldatu egin dituzte eta ezin duzu idia akuiluaz jo denbora guztian, markatu baino ezin duzu egin.

Uste duzu hemendik urte batzuetara kirol honek lehen zeukan arrakasta lortuko duela?

Bai, ezelango duda barik. Lehenago, idi probak lehiaketa ofizialetan bakarrik ikusi zitezkeen. Orain, ordea, herri askotako jaietan probak jartzen dituzte, eta gaur egun, hain tratu txarra ematen ez zaienez, gero eta jende gehiago dator probak ikustera.

Gainera, jende asko hurbiltzen da ikuskizun hauetara jakinminez, inoiz ez dutelako horrelako animaliarik ikusi.

Testua eta argazkiak: Maite Aranburu



Liburu eguna

Apirilaren 23an, mundu osoan Liburu Eguna ospatzen da. Gurean be, zelan edo halan ospatu zan nazioarteko egun hori. Arrekikili euskara elkarteak, Bihotz Bakartien Klubagaz batera Kirmen Uribe idazlea ekarri zeuen Larrabetzuko Kultur Etxera. Kirmen Uribe idazle gaztea da, eta iazko Durangoko Azoka aurretik aurkeztu zeuen bere lehenengo poesia liburua "Bitartean heldu eskutik"... gerora errezitalak egiten ibili da hainbat lekutan.

Etorri be, ondo lagunduta etorri zan ondarrutarra. Bera anaia Txomin gitarra hartuta izan zeuen poema gehienek laguntzaile; izan be Piztiak taldeko kitarjolea da Txomin Uribe. Eta musika eta poesiagaz batera Josu Aranbarri artista, zuzenean margolana egiteko prest. Margo ezberdinak eskuartean eta buzo baltza jantzita.

Apirilaren 23an astegune izan bazan be, ondo bete zan Kultur Etxea, eta edade guztietako larrabetzuarrak batu ziran poesia entzuteko asmoagaz. Holango saio bat egiten zan lehen aldia zan, eta gabonetako kultur ekitaldietan Joseba Sarrionandian poemakaz herritar talde batek errezitala egin ostean, literatur giroa sortzen joan da Larrabetzun. Gerora Bihotz Bakartien Kluba sortu da, eta Arrekikili euskara elkarteak klub honeri literatura eta liburuen ganekeo zeozer antolatzea eskatuta, klubekoek hileroko ekitaldi ezberdin bat egitea proposatu zeurien.

Liburu eguna aitzakia hartuta, Kirmen Uribek bere liburuko poemak errezitatu zituzten, banan-banan eta azalpenak emonez, poesia bera hobeto ulertuteko asmoagaz. Egia esan, bertan egondako umeak zein nagusiak gustora egon zirala esateko moduan gagoz, izen be jenteak adi-adi jarraitu zeuen saio osoa, ordubete ingurukoa.

Gitarra elektrikoaren doinuak be asko lagundu zeuen horretan, musika berezia sortuz poesia babestuago egongo zalako behar bada. Eta horrek bat baino gehiago harritu eta giro itzela lortu zeuen Kultur Etxeko lau horman artean.



Liburuen altxorra eskoletan

Eta Larrabetzuko eskolako liburutegia be, liburuz ganezka topatu dogu. Antza danez, Kattalin izeneko pirata bat heldu zan eskoletara, eta bertara batu jakozan eskolako ikasle danak. Altxor bat topatuta, altxor horretan batutako 140 liburuak eskolako liburutegian itxi zituen Kattalin pirata horrek, ipuina kontatu ostean. Orain, liburutegian haur eta gazte literaturako liburu horrek danak dagoz, eskolako ikasleek irakurtzeko aukera eduki deien.

Eskolan, bai irakasleak eta baita ikasleak be pozik ikusten dira. Eta egunero-egunero martxa ederra dabil liburutegi aldean. Ikasle nagusienak maileguak antolatzeaz arduratzen dira, eta ikasle bakoitxak gustoko dekon liburuak hartu eta irakurten deu. Eskoletako ikasgela bakoitxak bere liburutegitxoak dekon arren, liburutegi handira liburu barri asko heldu da Galtzagorri elkarteak antolatutako ekimen honegaz... eta oin gure gazteenak zer irakurri ugari eukiko deurie.



HACKERS

CIBER

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AN
- WEB ORRIALDEAK

MIKEL ZARATE 51 CONDESSA AURRENTI SONDINA
TEL.FONO: 94 453 75 70

GARRAIOLARIA



Miguel Angel Lokuc

Andra M^a, 151
LARRABETZU
Tfnoa. 94 455 80 20

VIDEO-CLUB EL TRASGU



- DVD
- VHS
- PLAY STATION
- JOKOAK
- OPARI SALMENTAK

Iturrigano, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDINA

Larrabetzu, poesia eta liburu artean

Bihotz Bakartien Kluba gaztetxetik sortutako literatur taldea

Bihotz Bakartien Kluba Sarrionandiak asmatutako termino bat da. Berak Argia aldizkariari eskinitako elkarrizketan esaten dauenez... "Esperientzia pertsonalean oinarrituriko broma bat da.

Euskal Herritik heldutako egunkari-anuntzio batzuetan BBK irakurri eta enigma bat egin zitzaidan, zer ote zen bbk hori. Euskaldunek arkano eta kriptograma asko erabiltzen duzue, ez zarete nik utzi zintuztedanean bezain jende tolesgabe eta arrunta.

Propaganda ere apur bat arraroa egiten duzue batzuetan, eta horixe ba, BBK zeren sigla ote zen, eta bihotz bakartien klubarena otu zitzaidan"... Eta Larrabetzun, poesia errezitaldiak egiten hasi zan talde batek izen hori jarri. Beste barik. Joseba Sarrionandian testu eta poe makaz orain arte Deustuko Gazte Lokalean, Gasteizko gaztetxean, Zamudio dorretxean aritu ostean, aurrerantzean be saio gehiago egiteko eskaintza jasota... poesia eta literaturaz zeozer gehiago egiteko asmoa deko taldeak.

Taldea ganera, izan be zabala da, kluba hitzak ez deko ezelango izaerarik, gura dauenak hartu leike parte. Deustuko emankizunean bertako kazetari eta antzezlea dan Galder Perezek hartu zeuen parte, monologo antzeko bat irakurriz. Gasteizko gaztetxean, Kirmen Uribe idazleak hainbet poema irakurri zituzen... eta holan handituz joateko asmoa deko klubak.

Eskuartearen asmo ugari dekoz bihotz bakartien klubak. Larrabetzun literatur tailerra martxan jartzea, literaturaren inguruko hitzaldi eta ekitaldiak antolatzea, errezital barriak egiten jarraitzea, gauzak publikatzea (interneten zein papelean) eta literaturazaletasuna bera hedatzea.



Ekitaldi bat eskolan

Klubean gaur egun batez be Hori Baiko jendea dabil, baina adin guztietako lagunak parte hartzen dabe. Guraso pare bat ere badago... eta batzen dituen irakurzaletasuna da, nahiz eta izan musikari, bertsolari, antzerkilari, ikasle, kazetari edo dana dalakoa.

Testua eta argazkiak: Patxi Gaztelumendi

Gestión Zamudio
Abokatuak eta Fisika
Jon Vázquez García
ABOKATUA, LINGÜÜSTA
Gertak. 7. Solair.
8107 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Telefono: 94 462 29 10 Fax: 94 462 29 11
E-mail: jvg@gestionzamudio.com
C.I.B. 8 982244

GASTRONOMIA BASKA
Cocineros Artesanos
ZERBITZU BEREZIAK (HERRI BAZKARIAK, LUNCHAK, ...)
KOLEKTIBITATEEI ZERBITZUAK (IKASTETXEA, LANTEGIAK, ...)
TORRELARRAGOITI IND. Z.G. 48.170 - ZAMUDIO
☎ 944 523 800 ☎ 944 523 942 ✉ gastrebaska@gastrebaska.com

LIBURU DENBIA PAPER DENBIA
ZAMUDIO
Liburuak, kateak, fi
Telefono / Fax: 94 462 29 10 - 48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)

LEJARRRENE JATETXEA
GARAIOITZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

OKINDEIA-DASTALEKUA
Aretxalde, 64
Tel.: 94 455 50 36 48196 11 ZAMA

Sukaldaritza

ETXEKO SUKALDARITZA

Mari Tere Onaindia

KONEJUA

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Koneju bat (kilo bat ingurukoa)
- Oliba olio
- Gatza
- Berakatza
- Kinpulea
- Zanahoria
- Arda zuria
- Tomatea
- Uruna

Konejua zatitu eta gatza egin. Urunagaz pasau eta oliba olioagaz prijidu. Olio hau presinozko kazuela batera pasau eta berakatz atal bi, kinpula bat, zanahori bi eta tomate natural bat bota txiki-txiki eginda. Basu bete arda zuri bota; gatz apur bat egin. Bertara koneju prijidua bota eta 10 minutuan euki egiten. Zabaldu presiozko kazuela eta koneju zati guztiak beste kazuela batera atara eta berdura guztiak txinoagaz pasau eta konejuaren gainera bota. Hau guztia 10 minutuan irikiten euki.



ARTEA ERROTA

M^a Luisa Zarate

Legatz buztanak, Errota erara beteak

Osagaiak (4 lagunentzat):

4 legatz-buztan
12 otarrainxka edo langostino
6 onddo, osorik
kilo 1 perretxiko

Bechamelaren osagaiak:

100 gr. gurin
100 gr. irin
litro bat esne
gatz

Prestatzeko modua

Otarrainxkak salteatu egingo ditugu. Onddoak eta perretxikoak bechamelarekin loditu, eta ondoren buztanak beteko ditugu orearekin.

Buztanak 15 minutuan edukiko ditugu labean.

Bechamela prestatzeko, lehenengo eta behin gurina sartagin batetan urtzen ipini. Urtuta dagoenean irina eta gatz pixka bat bota eta aurretik berotutako esnearekin nahastu loditu arte.

Aurkezteko modua

Patatekin eta sasoiko barazki salteatuekin txukunduko dugu.



LIBURUAK

"Paularen zazpi gauak"

Patxi Zubizarreta

JK Igerabide

Zortzi urtetik gorantzako umeentzat aproposa

Paula izenetko neskato batek eritetxean egindako egonaldia du oinarri, hainbat istorio kontatzeko

"Odolbilduak"

Josu Landa

Hemeretzi urte argitaratu gabe-ko Altzako idazleak, Nerbioi ibaiaren bazterretan kokatzen dau nobela baltz hau. 50.hamarkadan girotutako lan honetan kontrabando, polizia, hilketak eta infiltrazioak hartu dituhizpide.

DISKOAK

"Auskalo"

Alaitz eta Maider

Alaitz eta Maiderrek maiatzaren 16an kaleratuko dute beren hirugarren diskoa, "Auskalo".

Alaitz eta Maider izango dira ekainaren amaieran egingo den Pyrene jaialdian parte hartuko duten artistetako batzuk. Oiartzungo bikoiteak lehen egunean joko du, ekainaren 28an, Els Pets, Biella Nuie eta La Banda del Surdorekin batera. El Mundo de los Pirineos aldizkariak joan den urtetik antolatzen duen Pyrene jaialdiak kulturaz, naturaz eta mendiaz goatzeko aukera eskaintzen du hiru egunez.

"Nunca el tiempo es perdido"



Manolo Garcia

Pasadan maiatzaren 27an argitaratu zen Manolo Garcia-ren musika kaxa berezia, "Nunca el tiempo es perdido". Kaxa berezi honetan 23 kanta biltzen dira, horietako 14 zuzenean grabatuta, beste batzuk ezezagunak eta gainera sorpresak ere daude. Kaxak 5 CD biltzen ditu, abeslariaren argazkiak eta Manolok berak margotutako irudiak.

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Irudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasun. Zein da Erandiko benetako eleiza?



UMOREA

Astoa salgai

Bi lagun elkartzen dira kalean eta batak esaten dio besteari:

-Asto bat daukat, eta berak etxeko lan guztiak egiten ditu: gosaria prestatu, garbitu, gosaldia, umeak eskolara eramane...

Eta besteak esaten dio:

-A...Bai? Horrelako asto bat eduki behar dut. Salduko al didazu? Ehun mila emango dizut.

-Ez, ez. Ez dago salgai. Horrelako asto bat oso ona da, eta ezin da erraz aurkitu.

-Bai, bai, baina nik behar dut. Berrehun mila emango dizut.

-Ezetz, hain asto ona...

-Beno, azken eskaintza: bostehun mila.

-Beno, beno, zuretzat izango da.

Asto bat pasa ondoren, berriro ere elkartzen dira bi lagunak.

Astoa erosi zuenak, oso haserre, esaten dio besteari:

-Zer demontre saldu zenidan? Asto horrek ez du egiten ezer, dena apurtu eta ostikadak eman bakarrik.

-Bai, bai...horrela hitz egiten baduzu astoari buruz, ez duzu inoiz salduko.

ESAERA ZAHARRA

ESKOLA UMEAK SASIZ SASI ASKO JAN ETA GUTXI IKASI

Lehen, eskoletan maisuek ikasleak jotzen zituzten garaietan, haur asko eta asko, beldurrez, eskolara joan gabe geratu ohi ziren.

Hau da, "eskola ihesi" edo "piper" egin ohi zuten.

Eta jendeak ikus ez zitzan, bide ertzeko zuhaitzi eta sasietan ezkutatzen omen ziren.

AGENDA

Zamudio

-FUTBITO TXAPELKETA. Ekainak 1etik 24ra, Zamudioko kiroldegian

-PINTURA FIGURATIBO LEHIAKETA. Ekainak 22an, 20:00etan. Udaletxean

-BENIDORMERAKO BIDAIA 3. adinekoarentzat. Ekainak 1etik 14ra

-ESKOLAKO JAIA. Ekainak 22an, goizeko 10:00etatik hasita, jokoak, tailerrak, judo erakusketa, bertsolariak, herri bazkaria eta ume berbena egongo da.

-MUSIKA, EUSKAL ABESTIAK. Maiatzaren 31n, 20:30etan. Zamudioko elizan

-EGUN BATEKO IRTEERAK. Ekainaren 15ean, Viana, Lizarra. Ekainaren 22an, Medina de Pomar. Ekainaren 29an, Altamirako kobak, Santilana de Mar. Uztailaren 5ean, Estibaliz, Agurain, Zalduondo. Uztailaren 13an eta 14an, Andorra. Derio-Zamudio lasterketa. Ekainaren 2an

-ZAMUDIOKO SANTO TOMAS JAIK

Egitaraua 8. orrialdean

Loiu

-LOIUKO SAN PEDRO ETA SANTA LUZIA JAIK

Egitaraua 4. orrialdean

Sondika

-SONDIKAKO SAN JUAN JAIK

Egitaraua 6. orrialdean

Lezama

-PLATER TIRAKETA. Ekainaren 2an, 10:00etan. Errekatxun, Lezamako XIII. Sari Nagusia. F. U. Bizkaiko Txapelteka. Lezurmendi Elkartek antolatuta.

URBASARAKO IRTEERA. Ekainaren 9an. Lezamako Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkartek eta Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

-KURTZO AMAIERAKO JAIA. Ekainaren 15ean. Eskolan. Lezamako Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkartek antolatuta.

-MENDI IRTEERA PANTIKOSARA. Ekainaren 15ean eta 16an. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

-GOMAZKO PALETA HERRI MAILAKO TXAPELKETAREN FINALA. Ekainaren 15ean, 11:30etan. Frontoian. Lezamako Pilota Elkartek antolatuta.

-GINMASIA ERRITMIKOA ETA KARATE EMANALDIA. Ekainaren 16an. Frontoian. Lezamako Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkartek antolatuta.

-KONEKTA ZAITEZ. Ekainaren 17tik aurrera. 40 urtetik gorakoentzat informatika ikastaroa. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26

-SAN JUAN. Ekainaren 23an. Zorritzetan euskara elkartek eta udalak antolatuta.

20:30etan Lezamako abesbatza (kultur aretoan)

21:15etan Magia ikuskizuna

22:15etan Sua piztu eta abesteko ordua.

-MENDI IRTEERA: Jorrios Turtziozetik. Ekainaren 30ean. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

-FUTBITO V. TXAPELKETA LEZAMAN. Uztaileko arratsaldeetan. Biziak Kirol Taldeak eta udalak antolatuta. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26

-UDA. Kolonia irekiak Lezaman. 6 urtetik gorakoentzat. Uztailaren 1etik 12ra arte, 10:00etatik 13:30etara. Zorritzetan euskara elkartek eta udalak antolatuta. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26

-ABENTURA BIDAIA HUESKARA. Uztailaren 13 eta 14an. Autobusa, alojamendua pentsio osoan (albergean), bi aktibitate (barranko jaitsiera eta rafting edo hidrospeed) eta aseguru. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26

-TENIS IKASTAROA. Uztailaren 15etik abuztuaren 31ra arte. Talde murriztuak. Biziak Kirol Taldeak antolatuta (Amaia Olabarrieta 653.72.83.85)

Derio

-EUSKO TRENBIDEAK-en ERAKUSKETA. Maiatzak 30tik ekainak 5 arte.

-SANJUANADA. Ekainaren 23an. Musika, Txitxiburrintzia eta jokoak egongo dira mundu guztiarentzako

**OPTIKA IKUSLAN**

Behinurreko graduatuen
Kontaktuko lantza
Fotokopio behinurrekoak
Lentzen erakusketak

Ora kalera, 3. aldea. 94 452 28 18 ZAMUDIO


**SERVIRAPID**
Komunikazio Autok

Tonelerapild Ind. - Pol. 6, Buzen 3
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 18 24 - Fax: 94 452 18 34

**LAPIKO/s.l.**
Pinturak, materialak, pinturak
(LIZKATUAK)

Garaloltza, 107
48170 Lezama 94 455 65 11

OCTUBRE 1999

**Sabin Askolizaga**
Asesoría Asesoría
Alimentación

686 45 40 70

Tel. 94 453 1807
Fax 94 453 6027

Miraflores, 6. planta
48130 Sanflics-Bizkaia

**C.D. HIPICO
LOS AMIGOS DEL CABALLO
DE LEZAMA**

Garaloltza, 184 - Tel. 94 455 65 11
LEZAMA (Bizkaia)

C.I.F. G95056107

IBILALDIAK ZALDIZ
APOPILOTZA
MAILA GUZTIAK IKASTAROK
HITZORDUA AURRETIK

SONDIKAKO JAIKAK GORA SAN JUAN!!!



HACKERS

CIBER

- ON LINE JOUKAK
- CHAT-AK
- WEB ORRIALDEAK

Mikel Zarate, 5 (CORREOS BUREAU) SONDIKA
TELFOA: 94 403 20 78

ARTIZAR

MARKO JARTZEKO TAILERRA



Jueto Aizua, 3 • Tel.: 94 453 01 50 • 48150 SONDIKA



ARTE LIBERAK • ENKULANAK I.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiarak, kuadernaketa, plastikaketa, prentsa,
aldizkariak, liburuak, papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 • Tel.: / Faxa: 94 453 16 77 • 48150 SONDIKA (Bizkaia)



GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE - FISKAL - LAN - JURIDIKOA

Mateo Bidaurrezaga, 1 Iugo
Tel.: 94 453 33 28
Fax: 94 453 33 50
48150 SONDIKA

Nervion, 3 - 8º Dpto.B-2
Tel.: 94 423 42 42
Fax: 94 423 61 70
48001 BILBAO

VIDEO-CLUB EL TRASGU



. DVD

. VHS

. PLAY STATION JOKOAK

. OPARI SALMENTAK

Ibarrigane, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDIKA



Errementari, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928



Errementari Kalea, 22 • 48150 SONDIKA (Bizkaia)
Tel.: 94 451 57 54 • Móvil: 609 456 135 • Fax: 94 451 58 31

Consulting
Sondika, S.L.
9451 48888

Sabin Askolizaga

Asesora agentea



609 475 746

Tlf. 94 4531807

Fax 94 4536027

Mixtine, 6 Behea

48150 Sondika-Bizkaia

COPISTERÍA



PRODUCTOS

REPRODUCCIÓN

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

COPIES

• COPIES DE PLANTAS A PARTIR DE 10 CM. DE ALTO

• REPRODUCCIÓN Y AMPLIACIÓN DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS Y FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

• FOTOCOPIAS DE PLANTAS

SERVICIO DE

RECIBIDA Y ENTREGA

GRATUITO

A PROPRIOS

SONDIKA

Errementari, 20 Local

TEL. 944531928

URDULIZ

Errementari, 20 Local

TEL. 944531928

URDULIZ

Errementari, 20 Local

Email: propanos@kareneta.es Web: propanos.kareneta.es



kultura sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILEURUM



Sormena buhartzatzen dugu eta zure eskuelan jarlzen ditugu obra
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.

www.bbk.es

bbk 